

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

19 positibo berri
2.366 positibo guztira*

1.621 hildako EAEn
6 UCIn, EAEn

NAFARROAN

4 positibo berri
5.492 positibo guztira
528 hildako
2 UCIn

*Hernanin 67, Astigarragan 23

Sendatuak: EAE 18.347

«Nahi dugu herritarrek udaran beste modu batera ezagutzea sagardogintza»

Sagardoa, bertsolaritza eta musika uztartuz, hainbat ekitaldi eta plan berezi antolatu dituzte uztaileko eta abuzturako, 'Sagardoak elkartzen gaitu' ekimenaren barruan. Erreserbak egin daitezke internet bidez: 'sagardoa.eus'.

URUMEA SAGARDOTEGIAK

Sagardoak elkartzen gaitu ekimena jarri dute martxan, udarako, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Bertsozale elkarteak eta Musika Bulegoak. Hain justu, sagardotegiek, bertsolaritzak eta musikak egingo dute bat, uztailean eta abuztuan izango diren bost saio berezietan.

Datorren asteazkenean, hilaren 15ean, izango da aurrenekoa, Adunako Aburuza sagardotegian. 20:30etan hasita, bertso afaria egingo dute, Eli Pagola ereñotzuarrarekin eta Unai Mendizabalekin. Aitor Mendiluze ariko da gai-jartzaile lanetan. 40 euro izango dira.

Eta uztaileko beste bi hitzorduak, Astigarragan izango dira. Hilaren 24an, 17:30etan hasita, Astarben egingo dute bertso jaialdia eta afari-merienda, 25 euroan, Maialen Lujanbio hernaniarrarekin eta Agin Laburu astigarrarekin.

Eta 27an, bertso kata eta afari musikatuak izango da, Petriegin, 20:30etan hasita. Bertan ariko dira Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia bertsolariak, eta Imanol Kamio musikari hernaniarra. 40 eurokoa izango da prezioa.

Abuztuko biak, berriz, bailaratik kanpo izango dira. Usurbilgo Saizarren, musika jaialdia



Sagardogileak eta elkarte eta erakunde ezberdinetako ordezkariak, atzo, Astarbe sagardotegian egin zuten aurkezpenean.

eta afaria egingo dute 7an; eta Irungo Olan, bertso afaria izango da 29an, Angel Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Sebastian Lizaso eta Andoni Egafiarekin.

«Elkarlana balio erantsia da, egungo egoera honetan»

Atzo aurkeztu zuten ekimena, Astarbe sagardotegian, eta bertan izan ziren Olatz Mitxelena, Sagardogileen Elkarteak ordezkaria; Oier Iurramendi, Bertsozale elkartekoa; Aitor Bengoetxea, Musika Bulegoaren lehendakaria; Mikel Arrillaga, HAZIKOIA; eta Iker Goiria, Aldundiko turismo saileko ordezkaria.

«Nahi duguna da, herritarrek beste modu batera ezagutzea sagardoaren mundua, udara honetan», azaldu zuen Mitxelenak. Iurramendik eta Bengoetxeak, berriz, garai hauetan bertsolaritzak eta musikagintzak izan dituzten zailtasunak azaleratu zituzten, eta horrelako ekimenen garrantzia nabarmendu: «elkarlana eta elkarren arteko laguntza balio erantsia da, egoera berri honetan. Espero dugu aurrera begira ere elkarlan ho-

nek segida izatea», adierazi zuen Bengoetxeak. Arrillagak, bere aldetik, azaldu zuen krisi honek jendea bultzatu duela «bertako produktua kontsumitzera», baina «lan asko» dagoela egiteko oraindik. Eta Goiriak adierazi zuen, ekimenak «sagardogintzarekin daukagun altxorra nabarmentzeaz gain, euskal kulturari balioa» ematen diola.

Beste hainbat plan ere aukeran, sagardoarekin lotuta

Baina bost ekintza horiek bakarrik ez, beste hainbat proposamen ere luzatu dituzte, sagardoarekin lotuta. Bodega planek, batetik, bisita gidatu ezberdinak egiteko aukera ematen dute. Familia planek, bestalde, Gipuzkoako hainbat txoko ezagutzea ahalbidetzen dute, Agorregiko burdinola, Iturrarango erlauntza, Larraondoko zerrategia eta Aizpea meategia, esaterako; eta bisita horien ondoren, sagardotegian otordua egitea. Plan gastronomikoak ere badaude, sagardoa uzartzeko gaztarekin, txakolinarekin eta baserritarren azokekin. Kirol planek, aldiz,

kanoan edo arraunean aritu eta sagardotegian otordua egitea proposatzen dute. Eta plan kulturelek, itsasora eta mendira hurbilduko dituzte bisitariak, sagardoarekin lotura eginez.

Eta azkenik, landa eremuan asteburupasak egiteko aukera ere eskaini dute, landetxea, nekazal etxea edo xarmadun hotela duten zortzi sagardotegitan.

Ekintzetarako erreserbak egin eta sagardoa erosteko aukera, 'sagardoa.eus' web orrian

Uztaileko eta abuzturako antolatu dituzten bost saio berezietarako, dagoeneko egin daitezke erreserbak, bertsosarrerak.eus eta sagardoa.eus webguneetan. Eta gainerako planak erreserbatzeko, sagardoa.eus web orrian bertan izango da aukera. Zuzenean egin daitezke erreserbak, eta bilaketak egitea ere erraztu nahi izan dute: menuaren arabera, familian joateko egokienak, herriaren arabera... Sagardoa ere erosi daitezke bertan, eta 44 sagardo ezberdin daude aukeran. Eskaera egin, eta etxera eramaten dute. **K**

Ekitaldia gaur Tilosetan, Izagirrek eta Etxebarrietak

HERNANI EH BILDU

Ekitaldia antolatu du EH Bilduk Hernanin, gaur arratsalderako, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainaren barruan. 19:00etan hasita, Tilosetan izango dira Oihana Etxebarrieta legebiltzarkidea eta Juan Karlos Izagirre batzarkidea, hurrengo lau urteetarako eskaintza politikoa azaltzeko. Eurria eginez gero, Atsegindegian izango da.

EH Bilduko gazteen argazkia, gaur

HERNANI ERNAI

Hernaniko Ernaik deituta, EH Bilduko gazteen argazkia egingo dute gaur. Arratsaldeko 18:30etan izango da, Tilosetako eskailetan. Maskarillarekin joan beharko dute, eta segurtasun distantziak errespetatu.

Larrialdi kimikoen sirenak aktibatuko dituzte igandean

HERNANI EUSKO JAURLARITZA

Igande honetan egingo dute, Electroquímica Hernani enpresan, istripu kimikoen simulazioa. Horretarako, alerta sirenak aktibatuko dituzte, eguerdiko 12:00etan. Hala jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak. Simulazio hauen helburua da, «balizko larrialdi kimiko baten aurrean, herritarren segurtasuna bermatzea».

Yoga saioa gaur, Eizmendirekin

HERNANI YOGA

Doako yoga saioa eskainiko du gaur, Ave Maria parkean, Josune Eizmendik. Arratsaldeko 19:00etan izango da, nahi duten guztientzat irekia. Nahikoa da esterilla eramatea.

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

PEÑA
sulabe
Okindegia - Janaridenda
Eguneroko zure beharrei erantzuteko,
Kale Nagusian gaude.
Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGURUAK
Andre kalea 60, Hernani
Teli: 943 55 43 12
hator@hatoraholkularitza.net

Tripontzi
jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

GAUR Giro eguzkitsua izango dugu gaur ere, baina laino gehiago agertuko dira kostaldean. Arratsaldetik aurrera, barnealdean ere ugartuko dira lainoak, eta baliteke ekaitzak jotzea, zenbait tokitan. Ipar-mendebaldera aldatuko da haizea. **Min.16° / Max.24°**

BIHAR Fronte biki bat sartuko da bihar, eta lainoak eta euria ekarriko ditu, bereziki kostaldean. Zeru lainotuta egongo da bertan, eta euri txikia eta xirimiria egingo du. Barnealdean, lainotuta egongo da tarteka, baina aterai eutsiko dio. **Min.17° / Max.20°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Bi eguneko irteera Belaguan, kontrabandisten bideetatik

Asteburuko irteera antolatu du Mendiriz Mendik, uztailaren 18 eta 19rako. Izena emateko epea zabalik dago, elkartean.



Paraje ederretan barrena ibiliko dira, bi egunetan. Argazkia: Txe Zuza

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Asteburu osorako irteera antolatu du Mendiriz Mendi elkarteak, uztailaren 18 eta 19rako. Belagua bailarara joango dira, eta bi ibilbide osatuko dituzte, garai batean kontrabandistek erabiltzen zituzten bideetatik.

Larunbat eguerdian abiatuko dira autobusean, Atsegindetik, 13:00etan. Eta behin Belaguara iritsita, egun horretan bertan egingo dute aurreneko ibilbidea: 11 kilometro izango dira, 550 metroko desnibelarekin. Bi ordu eta 45 minututan osatzea aurreikusi dute.

Igandean, berriz, 21 kilometroko ibilbidea egingo dute, eta zortzi ordu inguru beharko dituzte. Izan ere, desnibel handikoa izango da, 1.100 metrokoa.

Edozein kasutan, zailtasun berezirik gabekoak dira bi ibilbideak, eta nahiko izango da mendiko material arrunta. Bigarren etaparako, hori bai, galtza luzeak eramatea gomendatu dute, jaitsieran zati bat nahiko zikina dagoelako. Mendiko bastoiak

hartzea ere gomendatu dute, eta baita ura ere, bi ibilbideetan ez baitago urrik, bide osoan.

Izenematea, elkartean

Irteeran parte hartzeko, izena eman behar da alde aurretik, elkartean bertan (Iturregi plaza): astelehen, ostegun eta ostiraletan, 20:00etatik 21:00etara. Bazkideentzat, 70 euro izango dira; eta bazkide ez direnentzat, 80 euro. Prezioaren barruan daude autobusean bidaia, eta aterpea pentsio erdian.

Autobusean eta aterpean, derrigorrezkoa izango da musukoa edo maskarilla eramatea.

Izabatik Santa Engrazira, bi egunetan

Premiak bultzatuta eta bizitza baldintza hobeen bila, kontrabandea izan zen irteenbideetako bat, inguru horietako biztanleentzat: «eguraldi baldintza

gogorak zirenean, bidezidor ezkutuenak erabiliz, mugen arteko merkantzia trukeak egiten zituzten. Gerratik ihes zebiltzanek eta makiek ere jaso zuten haien laguntza, muga zeharkatzeko. Istorio guzti horiek gogoraraziko dizkigute, igaroko ditugun zokoek», azaldu dute.

Aurreneko etapan, Izabako zerrategiaren ondok abiatuko dira, eta Ardidibegaina gailurra inguratuta, Matiaberroako lepora jaitsiko dira, bertatik Asolaze kanpin aldera joateko. Bigarren etapa, berriz, Belaguako begiratokian hasiko dute. Ipar-mendebaldera eginez, Urdaiteko lepora igoko dira, Nafarroatik Zuberoara igaro eta Ihizkunditzeko lepora igotzen jarraitzeko. Ehujarre arroilaren iturburura iritsiko dira gero, eta arroilaren goiko aldetik egingo dute Santa Engrazira jaitsiera, begiratokitik igarota, bista zoragarriekin. **K**

JASOTA BEZALA

Guinea argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Bihotzez, zorionak alkate jauna

Hernaniko Kaxkoko bizilagunek urtetan aurkeztu ditugu salaketak, bai udaletxean, eta baita bizilagunen elkartean, Berriak merkataria eta ostalarien elkartean, Udaltzaingoa, Ertzaintza, ETBn edota herriko egunkarietan; eta horien eraginez, eta pandemiak sortutako prebentzio beharrik, ekainaren 19an bilera bat egin zuten herriko alkateak eta komertzio saileko zinegotziak, herriko ostalariekin. 25 bat ostalarik hartu zuten parte, erantzukizunak partekatuz.

Udalak, bere aldetik, indartu du Udaltzaingoa presentzia kaleetan, eta gogorarazi du, ezin dela kalean edan; beraz, kedada eta botelloien kontrol zorrotza-

goa egingo du.

Ekainaren 20ko arratsaldetik, poliziaren bi kotxe Plazan zeudela, ekainaren 25era arte, esan dezakegu Kaxkoko tabernen eta autoritatearen agenteen jarrera, harrigarriak izan zirela.

Segurua, harrigarria eta ausarta izan zen alkatearen jokabidea ere, komunikabideen aurrean, festarako gogoia zeukaten turistak gonbidatuz Hernanira ez etortzera, bertan ez zutelako aurkituko.

Udaltzaingoak ikusi genituen Andrekalen gauz paseatzen, turista eta tabernariekin hizketan, eta beste momentu batzuetan megafoniarekin, bertan zeudenak gonbidatuz erantzukizunak partekatu eta gomen-

dioak betetzera, pandemiaren hedapena saihesteko.

Ezin zuten hutsik egin, eta arduragabe talde batek jarri zuen puntu iluna Atzietan, autoritateak esku hartzera behartuz, haiek sakabanatzeko.

Bikaina izan zen Kaxkoko tabernen jarrera, eta baita autoritatearen agenteena ere.

Hemendik gure zoriontzeko berezia alkateari eta komertzio zinegotziari, egun horietan izandako jokabide ausartagatik, aurrerantzean ere jarraipena izatea espero duguna. Bihotzez, zorionak alkate jauna.

Ion Azpiazu Goñi
Kaxko hobetu

Xaboi Tailerra, Urumea Herri Guneak

HERNANI URUMEA HERRI GUNEA

Igande honetan Xaboi tailerra eskainiko du Urumea Herri Guneak. Arratsaldeko 18:30etan emango zaio hasiera saioari, eta aurrez izena eman behar da; @koloreztatu helbidera emaila bidaliz edo Koloreztatu Instagramera mezu pribatu bat bidaliz.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JESUSA ZUBIZARRETA OSTOLAZA

(Gaspar Zabalegiren alarguna)

2020ko uztailaren 7an hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Seme-alabak: Roxa eta Pako, M^a Jose eta Manu; bilobak: Iñigo, Maitane eta Mikel, Imanol, Joseba; birlobak: Goiatz, Izeia; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OTEGUNA 9**, arratsaldeko **SEIETAN, ANDRE MARIAREN ZERURATZEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Astigarragan, 2020ko uztailaren 9an

OHARRA: Gorputza REKALDE auzoko FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan aurkitzen da, ostegun goizeko 11:30ak arte.

JOSE ANTONIO ZAPIAIN ERRAZKIN

Azkar joan zara gure ondok,
beti egongo zara gure bihotzean,
ez dizugu agurrik esango,
ikusirik arte baizik. Agur tio Potxolo.

**ILOBAK: IDOIA ETA ANGEL; EIDER
ETA IBON; XABIER; YOLANDA ETA
KOLDO; ETA IRUNE**

Hernanin, 2020ko uztailaren 9an

JOSE ANTONIO ZAPIAIN ERRAZKIN

Ez zaitugu ahaztuko

SANTA BARBARA ELKARTEA

Hernanin, 2020ko uztailaren 9an

† JOSE ANTONIO ZAPIAIN ERRAZKIN

- Goian bego -

Hire irrifarra gurekin geatze dek.

**XITO, JUANTXO, PRIMO, OKENDO ETA
IÑAKI**

Hernanin, 2020ko uztailaren 9an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume lan bila: edozein lan egiteko prest. Deitu: 609 209 161

19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. Deitu: 688 697 001

Udaran zerbitzari lanetarako norbait behar da Hernaniko taberna batean, esperientziarekin.

Bidalai CV-a: aurumea@gmail.com / Deitu: 695 788 981

Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Deitu: 618 119 781

Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin,

gidatzeko karneta eta prebentzio kurtsoak baloratuko dira. Interesatuak deitu 943 690 643

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidalai c.v.

rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)